

**JABETZE
FEMINISTARAKO
ESKOLA**


**ESCUELA PARA EL
EMPODERAMIENTO
FEMINISTA**

OROIT-IDAZKIA
octubre 2018ko urria
mayo 2019ko maiatza
MEMORIA

Secretaría Técnica:
Berdintasun Proiektuak, S.Coop.peq.




Amaierako laburpena



2018/2019ko ikasturtean, 63 jarduera programatu dira Jabetze Feministarako Eskolaren ohiko formatuan, eta beste 12 jarduera antolatu dira #FeminismoanItzel lerroaren barruan (azken horiek bereizita aztertuko dira).


Aurreikusitako jarduera guztietatik, azkenik, 58 egin dira; beraz, 5 lantegi bertan behera geratu dira, jende-kopuru nahikoa inskribatu ez delako.




Antolatutako jarduera gehienak «Ikastaroak eta lantegiak» sailekoak izan dira (% 74), eta gainerakoak «Hitzaldietan» (% 12), «Irakurle-klubetan» (% 5) eta «Bestelako formatuak» izenekoan (inaugurazio- eta itxiera-ekitaldiak) banatu dira.

Berdintasunerako Zerbitzuak zehaztutako ildo estrategikoen arabera antolatu dira jarduerak, prestakuntza-proposamenak xede estrategikoen arabera antolatzea ahalbidetzen baitute horiek. Batzuen eta besteen artean ez dago muga zorrotzik: **ildo guztiek elikatzen dute elkar, ezarritako xedeak lortzeari begira.**

Jarduera-kopurua, ildo estrategikoaren arabera





Egindako jardueren % 28 «Identitatea, subjektibitatea eta balio-aldaketa» ildo estrategikokoak izan dira. Jardueren % 19, berriz, «Feminismoak» ildoan biltzen dira, eta ondoren datoz «Kultura berdefinitzea» (% 16), «Indarkeria matxisten prebentzioa» (% 12) eta «Komunikazioa eta trebetasunak» (% 10).




1.685 parte-hartzaile zenbatu dira, eta honela banakatu daiteke kopuru hori:

Sexu/generoaren arabera




Jardueretara hurbildu diren lagunen % 12 gizonak izan dira; iaz, berriz, % 14 izan ziren. Dena dela, jaitsiera hori ezin daiteke garrantzitsutzat jo, kontuan hartu behar baita iaz guztira zenbatu ziren gizonen edo % 14 horren % 22 EHUko Hezkuntza Fakultatean antolatu ziren maskulinitate-lantegikoak zirela (66 pertsona). Aurten ez da jarduera hori programatu, eta ez da gizonei berariaz zuzendutako lantegirik egin.


Jarduera motaren arabera



- Hitzaldiak: 459 bertaratu.
- Lantegiak: Guztira, 688 inskribatu dira, eta horietatik 566 agertu dira; hau da, inskripzioaren % 82.
- Irakurle-klubak. Hiru klubetan bete dira leku guztiak (gaztelaniazkoak eta euskarazkoa).
- Eskola inauguratzeko eta ixteko ekitaldietara 526 lagun bertaratu dira.




Hizkuntzaren arabera



Honako hauek dira euskaraz eskaini diren jarduerak:



- Bi hitzaldi:
 - «Irungo eta Hondarribiko alardeak: 22 urteko gatazkaren kronika». Maite Asensio eta Arantxa Iraola.
 - «Erradikalak gara», Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal aktoreak antzerkira eramandako bakarriketak eta bertsoak.
- «Irakurle-klub feminista: *Feminist agenda* euskal literaturan».
- Zazpi lantegi:
 - «Autodefentsa feminista» (hastapena, euskaraz)
 - «Autodefentsa feminista» (talde egonkorra, euskaraz)
 - «Jendaurrean hitz egiteko teknikak» (euskaraz)
 - «Feminismoa eta euskalgintza»
 - «Kulturartekotasuna, hezkuntza eta generoa: hausnarketak eta erronkak»
 - «Sexu-indarkeria unibertsitateetan»
 - «Euskal kanta»

«Ate irekiak: Perkuneskak» eta «Benzodiazepinak» (AiLaket!!) lantegiak elebidunak izan dira (euskaraz eta gaztelaniaz).



Ikus daitekeenez, jardueren % 8 bakarrik programatu dira **euskaraz**, eta horietatik **hiru jarduera bertan behera** utzi behar izan dira, inskripzio nahikoak ez egoteagatik.



Adinaren arabera



Zehaztutako adin-tarteak aintzat harturik, asistentziaren ehunekoa nahiko orekatua dela ikus dezakegu, % 21 eta 24 artekoa baita tarte guztien batezbestekoa, 16-24 urteko tarte kenduta, % 7koa bakarrik baita.


Aurtengo ehunekoak iazkoekin alderatuz gero, ondorioak engainagarriak izan daitezke, ez badugu kontuan hartzen iaz 16-24 urte bitartekoa izan zela asistentzia handiena izan zuen adin-tarte, EHUren Hezkuntza eta Kirol Fakultatean antolatu ziren lantegiengatik (edizio honetan, ez da horrelakorik antolatu).

Lehen aldiz parte hartu duten pertsonak



2018/2019ko eskolan parte hartu duten pertsonen % 37k lehen aldiz izan dute aurtengoa, eta bertaratuen % 56k aurretik parte hartua zuten. Emaiza horietan ikus daitekeenez, gero eta pertsona gehiago (gehienbat, emakumeak) hurbiltzen dira lehen aldiz eskolako lantegi eta ikastaroetara, eta ehuneko oso altuak errepikatzen du, eskolaren proposamenarekin pozik daudela erakusten duen datu adierazgarria izaki hori.

Benetako parte-hartzeari buruz





2018-2019ko eskolara, guztira, 1.685 pertsona bertaratu dira.

Lantegietan izena eman duten 688 pertsonetatik 566 agertu dira (hau da, inskripzioaren % 82,27), eta 122 ez dira bertaratu (% 17,73). Zenbaki horiek aurreko edizioetan ere intuitzen baziren ere, ikasturte honetara arte ezin izan dira egiaztatu, memoria honetan erregistratu baita datu hau lehen aldiz. Izena ematen duen eta azkenean agertzen ez den (eta beste norbaitek aprobetxa lezakeen tokia okupatzen duen) % 17,73 hori ez dugu ondo baloratzen (ondu baloratuko genuke, ehuneko txiki-txikia balitz eta arrazoi justifikatuak egongo balira). Alabaina, beste agente batzuek beste testuinguru batzuetan ematen dituzten prestakuntzek izaten dutenaren antzeko ehunekoa da.

566 bertaratu horiengandik, 432 balorazio eta iritzi jaso ditugu. Beraz, bertaratuen % 76k eman dute iritzia, eta horrek fidagarritasun handia ematen die balorazioei. Are, lantegiak amaitzen dituzten pertsona guztiek galdetegia betetzen ez dutela kontuan hartuta ere, emaitzek nahiko datu onak eman dituzte.

Informazio-bideak

Erantzunak 494





Jardueretan parte hartu dutenek lantegien berri nola eduki duten azertzen badugu, **partehartzaileen % 37k jardueraren programazioa liburuxka informatiboaren bidez ezagutu dutela** ikus dezakegu (aurreko ikasturtean baino 11 puntu gehiago). Lagunen % 25ek jaso dute informazioa harreman pertsonalen bidez, eta, ondoren, % 13k sare sozialen bidez eduki dute jardueraren berri.

«Beste batzuk» atalean, jardueren berri izateko askotariko bideak jasotzen dira:

| Beste informazio bide batzuk / Otros medios de información  | Erantzunak Respuestas |
|---|--------------------------|
| Asociación Gitana Gao Lacho Drom | 30 |
| Web del Ayuntamiento | 12 |
| ERANTZUNIK EZ / NO CONTESTA | 6 |
| SETEM HEGO HAIZEA | 6 |
| Asociación USOA | 3 |
| AI LAKET!! Elkartea | 3 |
| ACОВI | 3 |
| CAP | 2 |
| Trabajo | 2 |
| Una amiga | 2 |
| Actividades del Ayuntamiento | 2 |
| Programación de la Escuela | 2 |
| Asociación | 2 |
| Radio | 2 |
| Gasteizko Udalaren web-orria | 1 |
| Invitación de Mentxu | 1 |
| Hala bedin egindako elkarrizketa batetik erakartua sentitu nintzen. | 1 |
| Gizarte Zentroa web orrian | 1 |
| Una participante del taller del año pasado. | 1 |
| Cartel en Centros Cívicos | 1 |
| Aurreko urteotan ere parte hartu izan dut. | 1 |
| Actividades de programación de zona C. C. | 1 |
| Laboral | 1 |
| Internet | 1 |
| A través de la Asociación (Asamma) | 1 |
| Total general | 88 |

Hizkuntza eta testuinguru kulturala



Erantzunak 432




Bertaratuen % 42k adierazi dute euskaraz antolatutako jardueretan parte hartzeko beste dakitela euskaraz, baina datu horrek ez du bat egiten hizkuntza horretan programatutako jardueretan egon diren inskripzio-kopuru eta asistentzia-indize eskasekin.

Elkartekak


Erantzunak 175



Datu horiei erreparatuz gero, eskolak elkarten artean gero eta aitortza handiagoa daukala ikus daiteke, eta, gure ustez, proposamenen kalitatearengatik eta jorratzen diren kezka sozialen sorta zabalaren ondorioz gertatzen da hori.



Horren erakusgarria da elkarteen eta eskolaren arteko lankidetzak estrategikotzat jotzen duten pertsonen ehuneko altua.




Balorazio orokorra


432 balorazio

Guztira, 432 galdetegi jaso dira. Horietan, parte-hartzaileek lantegiekin izan duten asebetetze-maila neurtu da, eta jardueren hainbat alderdi hartu dira kontuan: taldeko giroa, lantegiaren edukia, jasotako informazioa eta tratua, prestatzailearen lanaren balorazioa, lantegiaren balorazio orokorra.

Jasotako datuak ikusgarri egiteko, kontsultatu den alderdi bakoitzak jasotako balorazio-kopurua erakusten da diagrama honetan.



Honako hauek dira batez besteko balorazioak (gehienez ere, 6 puntu eman zitezkeen):




Grafikoak, zalantzarik gabe, parte-hartzaileak lantegiekin oso pozik geratu direla erakusten du, balora zitezkeen alderdi guztietan. Bereziki, lantegiak ematen dituzten trebatzaileei (5,5) eta taldeetan sortutako giroari (5,6) emandako balorazioa nabarmendu da.

Bataz besteko balorazioak 1go aldia

(Puntuazioa 1tik 6ra)

Valoraciones medias 1ª vez

(Puntuaciones de 1 a 6)




Alde handirik egon ez arren, prestakuntzeara lehen aldiz joandakoek eman dituzte balorazio altuenak.

Bataz besteko balorazioak, adinaren arabera

(Puntuazioa 1tik 6ra)


Valoraciones medias por edades

(Puntuaciones de 1 a 6)



Balorazio guztiak oso onak direla aintzat hartuta, balorazio baxuenak ematen dituen adin-tartea 34-44koa dela ikus daiteke, eta balorazio altuenak ematen dituenak 55 urtetik gorakoena dela.

Trebatzaileen galdetegia



Grafikoan beha daitekeen moduan, trebatzaileek oso ondo baloratu dute emandako prestakuntza. Ondoren, trebatzaileek prestakuntzaren ostean betetako galdetegietan islatu diren ideia nagusiak laburbiltzen dira.

Elkarteen eta kolektiboen laguntza

Honako kolektibo eta elkarte hauek eskolari lagundu diote, bai hitzaldiak moderatuz, bai ikastaroak eta lantegiak proposatuz edo emanez:


- PERKUNESKAK elkarte
- Arabako Emakumeen Asanblada
- ACOVI-Gasteizko Kontseiluen Elkarte
- SETEM Hego Haizea
- AiLaket!!
- APDEMA-Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte
- ASAFES-Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte
- Gao Lacho Drom elkarteko emakume-taldea
- Arabako SEADen Lagunen Elkarte
- Arabako Gorrak
- Eginaren Eginez
- Autonomia Pertsonalerako Zentroa (CAP)
- Al Indimay elkarte
- Arabako Amen Elkarte (AMA)
- Ozen! LGTB Liga
- Blusen eta Nesken Batzordea
- Wayra
- Emakumeak Aniztasunean elkarte

Bestalde, elkarte hauetako kideak izan ditugu 2018-2019ko eskolan trebatzaile:

- Maria de Maeztu Forum Feminista
- Munduko Emakumeak
- Bloke Papelero Trashumante
- 7menos20
- Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo taldea
- Arabako Emakumeen Asanblada
- Sorkin Laboratorio de Saberes
- Emagin elkarte
- Desazkundera feminismoen taldea
- AiLaket!!
- Colectivo Alternativo de Aprendizajes
- COCEMFE-Desgaitasun Fisiko eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioa

Talde guztiei bidali zaie galdetegi bat, eskolan proposatutako lantegiari buruz duten iritzia jasotzeko. Bada, hamar hauek erantzun dute: AiLaket!!, ACOVI, ADSIS, ASAFES, Arabako SEADen Lagunen Elkarte, Gao Lacho Drom, Perkuneskak, SETEM Hego Haizea eta Tipi-Tapa sarea.

Lantegiak antolatzen parte hartu duten eta bidalitako galdetegiari erantzun dioten elkarten batez besteko balorazioak jaso ditugu:



Irisgarritasunerako eta kontziliaziorako zerbitzua

Haurrak zaintzeko zerbitzua

Honako lantegi hauetan erabili da zaintzen zerbitzua:

- Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa genero ikuspegitik irakasteko lantegia
- Amen artean lantegia (5 saiotan)

- Gutxiago gehiago da: desazkunde ekofeminista (4 saiotan)
- 2018/2019ko eskolaren itxiera

Edizio honetan, aurreko edizioetatik bereizi duten hiru ezaugarri berri izan ditu zerbitzuak:

- Hurrekin joan diren helduek jarduerak egiteko erabili dituzten instalazio berberetan eman da zerbitzua.
- Zainduz elkarte feministaren bidez kudeatu da zerbitzua. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da hori, eta zaintzen sistema bidezkoago, bizigarriago eta kolektiboago baterantz aurrera egiteko xedea dauka.
- Asebetetze-galdetegiak egin dira, zerbitzua baloratzeko xedez, baliagarriak izango direlako bai eskolarako, bai zerbitzua eman duen elkarterako.

Zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzua

Eskolak zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuarekin grabatu ditu irekiera- eta itxiera-ekitaldiak eta hitzaldi guztiak. Ondoren, azpтитuluak jarri zaizkie grabaketei, zeinu-hizkuntza ulertzen ez duten gorrek ikusi ahal izan ditzaten. (Bideoteka: <https://bit.ly/2pndAEq>). Gorrek ez dute zerbitzua beste jarduera batzuetan eskatu.



#FeminismoMola

Jarduerak

#Feminismoantzel lerroan, 12 jarduera programatu dira (11 lantegi eta antzezlan 1), eta, horietatik, sei egin dira, eta beste seiak bertan behera geratu dira. Azkenik egin direnen artean, hiru neskei zuzenduta zeuden, eta beste hirurak mistoak ziren.

Lau jarduera euskaraz programatu dira, eta horietatik bi egin dira.

Egindako jardueretan, bi lantegi hauen egitaraua aldatu behar izan da, gutxieneko inskripzio-kopurura iriste aldera: «Kapoeira, Safoko berinbaoa» eta «Sexu-aniztasuna... zer ote da hori?».



Ildo estrategikoak

Honako hauek dira egindako jardueren ildo estrategikoak:



| Ildo estrategikoak | Jarduerak |
|--|-----------|
| Identitatea, subjektibotasuna eta balio-aldaketa | 1 |
| Sexu-joera eta genero-identitatea | 1 |
| Genero-ikuspegia | 2 |
| Indarkeria matxistaren prebentzioa | 2 |

Parte-hartzea


#Feminismoantzel-en lehenengo edizio honetan, 71 neska-mutilek eman dute izena, eta horietatik 63 agertu dira. Guztira, 53 galdetegi jaso dira. Tailerren asistentziari antzezlaneko asistentzia gehituz gero, guztira 123 pertsona bertaratu dira #Feminismoantzel-eko jardueretara.




Bertaratu diren gehienak neska gisa identifikatu dira (% 89); ondoren, ez-binarioak egon dira (% 7), eta, azkenik, mutil gisa identifikatu direnak (% 4). Azpimarragarria da ez-binarioen ehunekoa, helduei zuzendutako jardueretan 1.685etik 3 bakarrik identifikatu baitira horrela.





Parte-hartzaile gehienek 10 eta 13 urte bitartean dauzkate (%66), lantegi gehienek aurreikuspenekin bat, adin horietara zuzenduta baitzeuden. Parte-hartzaileen %11 14-16 adin-tartekoak ziren, eta parte-hartzaileen %23k 17 eta 18 urte bitartean zeuzkaten. Baliteke parte-hartzaile gazteenak ugariak izatea gurasoek apuntatzen dituztelako. Nagusiagoak autonomoak dira, eta eskola ez da sozializatzeko edo erreferentziako toki bat haientzat.





Parte-hartzaileen ia laurden batek (% 24) hainbat jardueratan hartu du parte.





Parte-hartzaile gehienek (% 58) kontaktu pertsonalen bidez izan dute jardueren berri; beraz, pentsatzekoa da gurasoek edo arduradun batek eman dietela izena eskolan. «Beste batzuk» atalak

hartzen duen % 29 hori ADSIS fundazioari dagokio (lantegi itxia antolatu da horrentzat), eta parte-hartzaileen % 7 eskolaren liburuxkaren bidez eta % 6 sare sozialen bidez informatu dira.

Euskara eta hizkuntza

Asistentziari hizkuntzaren arabera begiraturaz gero, 75 parte-hartzailek (% 61 inguru) euskarazko jardueretan hartu dute parte (antzezlanean eta lantegi batean), eta gainerako 48ek gaztelaniazko jardueretan hartu dute parte.



% 85ek hitz egiten dute euskaraz, baina hizkuntza gehiago hitz egiten dituztela baieztatu dute.

| Hizkuntza | Erantzunak |
|-----------|------------|
| Ingelesa | 20 |
| Katalana | 3 |
| Kaloa | 1 |
| Errusiera | 1 |
| Alemana | 1 |
| Koreera | 1 |


Balorazio orokorra

Balorazioak 53

Galdetegiak beren adinera egokitu dira, galderak soiltzeko. Batez besteko balorazioak oso onak izan dira, 6tik 5,5etik gorako puntuatzea jaso baitute eremu guztiek.



#Feminismoanltzel-eko trebatzaileen galdetegia



Trebatzaileek oso ondo baloratu dute emandako prestakuntza, eta honako alderdi hauek lortu dute puntuatze handiena: taldean sortutako giroa, komunikazioa, antolakuntzak emandako tratua eta baldintza materialak. Alabaina, aurreikusitako xedeen betetze-maila baloratu dute gaizkien.

